



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

1. Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak, 2022ko ekitaldirako.....	2
2. Udal informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko dirulaguntzak, geoEuskadi geotariaren bidez, 2022ko ekitaldirako.....	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak, 2022ko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak presta ditzaten.....	6
4. ZTBP Euskadi 2030 planaren (BAI+D+i programa) «Hiri jasangarriak» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzea .....	8
5. Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) .....	9
6. Alokairua sustatzeko dirulaguntzak .....	10
7. Gaztelagun Programa.....	14
8. Salmentarako babes publikoko etxebizitzak.....	16
9. Ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeko dirulaguntzak.....	18
10. Partikularrek eta auzotarren erkidegoek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentzea hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-konsumoa murrizteko.....	19
11. Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, energia-eraginkortasuna sustatzeko (3, 4 eta 5 programak) .....	23
12. Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko dirulaguntzak, Eraikal 2022 programa .....	25
13. Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak .....	27
14. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko dirulaguntzak 2022. urterako.....	29
15. Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako dirulaguntzak, 2022. Urterako .....	30
16. Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2022. urterako .....	31



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak, 2022ko ekitaldirako**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten duena

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202540e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/11/2204736e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak emateko arauak eta deialdia ezartzea 2022ko ekitaldirako.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Bosgarren deialdian (2022) 2017ko ekitaldian ezarritako ildoari eutsi zaio, 2018an eta 2019an egindako doikuntzekin, eta diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoaren eguneratze-doikuntzarekin (KPIaren aldaketa), 2 udalek soilik aurkeztu dute eskaera (Bizkaiko biak). Biek jaso dute dirulaguntza. Udaletako batek zentralitate-eremu bat du ardatz, eta eremu horren antolamendua berriz aztertuko da (egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren mailan); besteak, berriz, indarreko plangintza orokorraren eremura zabaltzen du lana, izapidetzen hasi diren bi aldaketa aztertu ondoren.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 30.532,05 euro izan da, horretarako dagoen aurrekontuaren % 15 (200.000 euro).

Emaitza hori dela eta, Agindua egungo baldintzekin lortzen ari den eraginari buruzko hausnarketa egin behar izan da. Hala, ikusi da dirulaguntzaren xedea hirigintza-arloan genero-ikuspegia plangintza-tresnei buruzko dokumentuen bidez soilik txertatzera mugatzeko egungo baldintzak honako hauek mugatu ditzakeela: alde batetik, udalerrri interesdunen kopurua (plangintza-tresna baten konplexutasuna dela eta); eta, bestetik, genero-ikuspegia hirigintzan txertatzearen azken irismena. Beraz, lehendik dagoen hiri-antolamenduko espazio publikoaren antolamenduari buruzko dokumentuak diruz laguntzeko aukera sartu da.

Egindako bost deialdien jarraipenetik, 40 udalek jaso dute dirulaguntza, eta 44 lanek. Udal horietako hiruk dirulaguntza jaso dute hainbat deialditan; bik bi deialditan eta batek hirutan. Hiru udalerrietako bakoitzean,



dirulaguntzetako bat HAPO berrikusteko prozesuari lotuta egon da. Beste dirulaguntzak Birgaitze Plan Berezi bati lotuta egon dira bi udalerritan, eta Ordenantza eta Hiri Antolamenduko Plan Berezi bati lotuta hirugarrenean. Beraz, hiru udalerrri horietan genero-ikuspegia txertatu da udal-plangintzaren eta hirigintzaren hainbat eskalatan. Deialdi berrian aurreikusitako objektuaren egokitzapenak hirigintzan sartzeko eskala osatuko du.

Udal hirigintza-plangintzako tresnetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko laburpen-taula, egindako 5 laguntza-deialdiei buruzkoa:

Genero-ikuspegia honako hirigintza-tresna hauetan txertatzeko proiektuak	2017	2018	2019	2021	2022*
HAPO berrikusteko prozesuan	9	5	11	5	
Indarrean dagoen plangintza orokorrean	2	3			1
Birgaitzeko Plan Berezian	1			1	
Birgaitze eta Barne Erreformatarako Plan Berezian		1			
Hiri Antolamenduko Plan Berezian					1
Eraikuntza- eta/edo urbanizazio-ordenantzak	1	1	1	1	
Hirigintza-tresnak guztira	13	10	12	7	2

(\*) Diruz lagundutako hirigintza-tresnen kopurua, entregatzeko epea 2023ko azaroaren 30era arte

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Hirigintza-tresnen kopurua	12/urte	2
Udalerrri kopurua	12/urte	2



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Udal informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko dirulaguntzak, geoEuskadi geoatariaren bidez, 2022ko ekitaldirako**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako, udal informazio geografikoa hobetu eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko, geoEuskadi geoatariaren bidez, 2022ko ekitaldirako

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko 2022ko ekitaldirako, udal-informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko geoEuskadi geoatariaren bidez.

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 16koa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta jakinarazten baitira Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko maiatzaren 25eko Aginduan ezarritako laguntzak. Aipatutako agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da dirulaguntzak emateko 2022ko ekitaldirako, udal-informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko datu espazialen azpiegituran integratzeko geoEuskadi geoatariaren bidez.

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei 2022ko ekitaldirako emango zaizkien dirulaguntzak arautzea, udal-informazio geografikoa hobetzea eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren osagaiak berrerabiltzean eta geoEuskadi geoatariaren integratzean oinarritutako udal-baliabide edo -zerbitzu geografikoak ezartzea bultzatzeko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

30 eskabide aurkeztu ziren, eta 21 udali eman zitzaien dirulaguntza; 8 geratu ziren dirulaguntzarik gabe, aurrekontu-kreditua agortu zelako, eta 1, balorazioan gutxieneko nota lortu ez zelako.

Esleitutako aurrekontuaren % 100 gauzatu zen (200.000 €).

Dirulaguntza-lerro honek sortzen duen interesa nabarmendu behar da; izan ere, azken deialdian eskaeren erdia baino ezin izan da bete, gutxi gorabehera, eta horrek erakusten du interesa. 2014an jarri



zen abian udalen informazio geografikoa programa, 1996az geroztik udal-mapak eta hiri-eskalen kartografiak egiteko antzeko beste laguntza-ildo batzuen jarraipen gisa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako udalen kopurua	20	21



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udalenzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak, 2022ko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak presta ditzaten**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 2koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2022ko ekitaldirako paisaien ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalenzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Agindua, 2022ko maiatzaren 2koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202214e.pdf>

Emakida-ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2203895e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da dirulaguntzak ematea EAeko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei Paisaiarako Ekintza Planak (PEP) egitearen ondoriozko gastuetarako.

Aipatutako 90/2014 Dekretuaren 6.1 artikulua xedatzen du PEPak kudeaketa-tresnak direla, paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko jarduketan esparruan gauzatu beharreko ekintzak zehaztuko dituztenak.

Lurralde Plangintzaren eskumenetik, deialdietan lehentasuna emango zaio gaur egun degradatuta dauden eremuak berronertzeari, hala nola langile-auzoak, irisgarritasuna hobetzeko eta eraikinak birgaitzeko edo hiria berronertzeko obren ondorioz eraldaketa handiak jasan baitituzte. Paisaia-elementu esanguratsuei edo identitatekoei ere balioa eman nahi zaie, baina babes-figurarik gabe, baita mugikortasunean edo osasunean duten eginkizunari ere.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Paisaiaren arloko ekintza-planen garapena oso desberdina izan da aurreko deialdietan, udalerrri batzuek baliabide gutxi dituztelako, kudeaketa konplexua delako beste udalerrri batzuetan, eta diruz lagundutako erakundeek ez dutelako esperientziarik arlo horretan. Era berean, modu negatiboan eragin du deialdien datak aldatzea, eta zenbaitetan laguntzen oinarriak ezartzen dituen agindua urtearen amaieran argitaratu



dela. Hala ere, oso positibotzat jotzen dugu aurreko deialdietan diruz lagundutako zenbait udalek beren PEPen ekintzak beren hiri-antolamenduko plan orokorrean edo estrategian txertatu izana.

2022ko azken deialdian, gora egin zuen hamar erakundek egindako eskaeren kopuruak, 2021eko bi eskatzaileen aldean. Proposamenak baloratu ondoren, 9 erakundek jaso zituzten dirulaguntzak, 205.559,14 euroko zenbatekoarekin, eta ibai-eremuetan zentratu ziren. Aurrerapen hori, neurri handi batean, laguntzak arautzen dituen Aginduaren argitalpena (maiatza) aurreratu izanari zor zaio. Deialdia lehenago (duela 3 urte edo gehiago) diruz lagundutako erakundeei ere ireki zaie. Ondorioz, eskatzaile gehiagok lortu zuten erredakzio-taldea kontratatzea eta proposamen bat aurkeztea.

Hala ere, dirulaguntzek ez dute isla handirik biztanleen eguneroko bizitzan, oso gutxitan gauzatu dira, ekintzak plangintza-fasean daudelako. Laguntzak aldatu nahi dira, kudeaketa eta exekuziorantz joan daitezten.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurreikusitako jarduketak	40	9
Eragindako biztanleen kopurua	200.000	91.373



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**ZTBP Euskadi 2030 planaren (BAI+D+i programa) «Hiri jasangarriak» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzea**

## 2.- Araua

Agindua, 2022ko abenduaren 12koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez 2022ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezartzen baitira eta horietarako deialdia egiten baita, ZTBP Euskadi 2030 planaren (BAI+D+i programa) «Hiri jasangarriak» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Agindua, 2022ko abenduaren 12koa:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205525e.pdf>

Aginduaren deialdiaren data kontuan hartuta, ezin izan da esleipen-ebazpena ebatzi, esleitu eta argitaratu 2022ko ekitaldiaren barruan, eta, beraz, 2023ko ekitaldian egingo da.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak ikerketan Euskal Hiria Agendaren garapenari egindako ekarpenak bideratu nahi ditu, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako EAEko Planean eta Espezializazio Adimenduneko Estrategian jasotakoarekin bat etorritz.

Helburu nagusiak honako hauek dira: lurralde-plangintzaren eta hiri-berroneratzearen arloko ezagutza indartzea, kalteberatasun-egoeran dauden auzo eta eremuetan lehentasunez jardutea, partaidetzazko plangintza eta kudeaketa integratua sustatzea, generoen arteko berdintasuna eta gizartearen ahalduntzea sustatzea, eta Euskadi Europako erreferente bihurtzea hiri-berroneratze integralean.

Horretarako, hiri-berroneratzearen ikuspegi integrala ematen duten proiektuak sustatzen dira. Gainera, beste eremu batzuetan errepika daitezkeen eta ekimen, produktu eta irtenbide berritzaileak sustatzen dituzten irtenbideak eman behar dituzte.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi honen emaitzak 2023ko ekitaldian ebaluatuko dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ez da adierazlerik ezarri		





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)**

## 2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa (EES) aitortzen du. Horretarako, etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat jarriko da alokairuan, baita etxebizitza libre bat ere, baldin eta eskuragarri badago bitartekaritza-programengatik edo beste arrazoi batzuegatik.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ez badago, eta izaera subsidiarioarekin, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri behar da.

Eskatzaileen eskura etxebizitza edo bizitoki bat jarriko dela bermatu nahi da, alokairu-araubidean eta, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko abenduko egoera honela ebatzitako 7.333 eskabidetan laburbiltzen da, etxebizitzarako eskubide subjektiboarekin: 3.180 eskaera etxebizitza esleitzeko lehentasunarekin, 2.191 etxebizitza esleituarekin eta 1.675 etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin (EPE); gainerako 287 eskaerak iraungitako EPEak dira. 2022an 1.688 espediente zenbatu dira (510 gizonei dagozkie eta 1.178 emakumeei).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aitortutako EES duten etxeen unitateen kopurua	10.000	7.333
EPE ordainketa	5.000.000	4.735.070



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Alokairua sustatzeko dirulaguntzak**

## 2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

**BOE araubidea:**

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: "2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa". (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

**BOEen gehieneko prezioak:**

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: "2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa". (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

**Alokairua sustatzea:**

- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.).



**Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:**

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).

**ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa:**

- 144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena. (2019ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.).
- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzeko dena. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 206. zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

2022ko maiatzaren 31ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Horren bidez, argitara eman dira 2022an etxebizitzaren eta lurzorua arloko hainbat jarduketara babesgarritako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak. (2022ko ekainaren 10eko EHAA, 112. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da etxebizitza eskuratzea sustatzea, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuta.

Helburua da alokairu babesturako etxebizitzaren sustapena diruz laguntzea, etxebizitzak alokairu babesturako erosteko dirulaguntzak ematea eta zuzkidura-bizitokiaren sustapena diruz laguntzea. Errentamendua sustatzeko ildo horretan, landa-inguruneetako udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak ematen dira.

Halaber, etxebizitzaren aldi baterako lagapena barne hartzen da, errentamendu babesturako, Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitzak, zuzenean kolektibo jakin batzuei esleituak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

**Errentamendua sustatzea**



Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak dira errentamendua sustatzeko dirulaguntzak, hau da, errentamendu babesturako etxebizitzak sustatzeko dirulaguntzak, errentamendu babesturako etxebizitzak erosteko dirulaguntzak, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko dirulaguntzak eta landa-inguruneetan udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak. Urtero, sailburuaren agindu baten bidez, dirulaguntza-lerro honetara bideratutako kredituen berri ematen da.

2022ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura 19.000.000 eurokoa da, urte anitzekoa 2022/2024.

2022an, errentamendua sustatzeko laguntza hauek ebatzi dira:

- Errentamendu babesturako laguntzak: 33+52 etxebizitzako bi sustapen, guztira 2.736.000,00 euroko dirulaguntza dutenak (2022/2024 urte anitzekoa)
- Zuzkidura-bizitokiak: 2+15 zuzkidura-bizitokiko bi sustapen, 850.000,00 euroko dirulaguntzetan eta 903.518,25 € subsidioetan
- Landa-birgaitzea: 1+5+5 etxebizitzako hiru sustapen, 1.100.861,17 euroko dirulaguntzetan (hainbat urtetarako 2022/2024)

Gainera, Sailak zuzkidura-bizitokien bi sustapen hasi ditu: 5 Donostian eta 58 Bilbon eta alokairuko 866 etxebizitza hasi dira: 139 Sailarenak, 502 VISESArenak eta 225 sustatzaile pribatuenak.

#### ***ASAP, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa***

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzea arrazoizko prezioan errentarientzat (2.d.2. helburua).

Aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezartzen da, ez-ordaintzeak, gerta daitezkeen kalteak eta laguntza juridikoa estaltzeko, etxebizitza hutsen jabeek programan parte har dezaten sustatzeko.

Jabeei eskainitako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, alokairuen gehieneko prezioak finkatzen ditu, merkatu librean baino prezio baxuagoak eta lehiakorragoak bermatuz, eta, horrela, inguruabar sozioekonomikoengatik merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzaileek alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera handiagoak izango dituztela bermatuz.

Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritzan Agente Laguntzaileen Sarea sortu du. Sare horrek hainbat eginkizun garrantzitsu hartuko ditu bere gain, aipatutako programa abian jartzeko eta martxan jartzeko.

Sortu zenetik eta 2022an, 18 agente laguntzaile inskribatu dira programan, lurraldeka honela banatuta: Araban 2, Bizkaian 5, Gipuzkoan 9, Alokabide (hiru lurralde historikoetan bulegoak dituenak) eta Araban eta Bizkaian bulegoak dituen erakunde bat.

2022an, ASAPen etxebizitza-parkeak 239 etxebizitza ditu.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Alokairuko etxebizitzaren sustapena	1.200	866
Zuzkidura-bizitokiaren sustapena	100	80
Alokairuko etxebizitzaren aldi baterako lagapena	270	85
Landa-eremua birgaitzea	100	11
ASAP programa	400	239



### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

#### Gaztelagun Programa

### 2.- Araua

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena.

AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua.

AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena.

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak.

### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa. (2018ko abenduaren 28ko EHAA, 249. zk.)

AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa. (2019ko abenduaren 17ko EHAA, 239. zk.)

AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 206. zk.)

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa. (2022ko maiatzaren 6ko EHAA, 87. zk.)

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 31koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Horren bidez, argitara eman dira 2022an etxebizitzaren eta lurzoruen arloko hainbat jarduketa babesgarritako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak. (2022ko ekainaren 10eko EHAA, 12. zk.)

### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programak etxebizitza eskuratzea sustatu nahi du, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuta, gazteen emantzipazioa erraztuz.

2022ko ekitaldian, programa hori arautzen duen eta programa iraunkorra izatea eragiten duen apirilaren 26ko AGINDU berria onartu zen.

### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Diruz lagundutako zenbatekoa, guztira: 8.501.073,15 euro.

ALOKABIDEk, programaren kudeaketan laguntzaile den aldetik, zenbateko hau jaso du kudeaketa-gastuengatik: 984.725 euro.



2022ko abenduan, 3.967 eskaera aktibatu ziren Gaztelagun programan: 705 Araban, 2.031 Bizkaian eta 1.231 Gipuzkoan. Pertsona bakoitzaren batez besteko errenta 640,95 € izan da, eta 234,10 euroko dirulaguntza, hau da, errentaren gaineko dirulaguntzaren % 53,21.

2022an 1.572 espediente eman dira: 681 gizoni eta 890 emakumeri (espediente batetik ez dugu daturik), 1.738.582,98 euroko zenbatekoarekin.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Alokairua ordaintzeko prestazioen gazte onuradunen kopurua	3.500	3.967



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Salmentarako babes publikoko etxebizitzak**

## 2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurri buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakunde eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (EHAA, 247. zk., 2011ko abenduaren 30a).  
AGINDUA, 2022ko ekainaren 30koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitoki kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (EHAA, 211. zk., 2012ko urriaren 31).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: "2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa". (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakunde eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).
- FINANTZA-LANKIDETZARAKO HITZARMENA, kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzorua arloko jarduketa babesgarri buruzkoa, 2019. urterako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 31koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Horren bidez, argitara eman dira 2022an etxebizitzaren eta lurzorua arloko hainbat jarduketa babesgarritako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak. (2022ko ekainaren 10eko EHAA, 12. zk.)





#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da etxebizitza duin eta egokia eskuratzen laguntzea.

Etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntzak eman nahi dira, baldin eta hiri-eremu espezifikoetan, birgaitze integratuko eremuetan eta eremu degradatuetan badaude, jarduketa integratuen laguntzarekin. Azalera-eskubideko etxebizitza babestuen sustapena ere diruz lagundu nahi da. Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA) sozietate publikoarekin egindako programa-kontratuen bidez gauzatzen da ildo hori.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko eta lehiaketa publikoko dirulaguntzak.

Urtero, sailburuaren agindu baten bidez, erabilitako etxebizitza librea erostera bideratutako kredituen berri ematen da.

2022ko ekitaldian, etxebizitza libre erabilia erosteko aurrekontu-zuzkidura 400.000 eurokoa izan zen (17.565 euro gehituta). 26 etxebizitza erosi ziren, 165.812 euroko dirulaguntzarekin.

VISESAk egikaritutako etxebizitzak alokairuan izan ziren.

2022an, erabilitako 26 etxebizitza libre erosteko ebazpena eman da, eta, guztira, 152.355,31 euroko dirulaguntza eman da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erositako etxebizitzen kopurua		26
Azalera-eskubidean sustatutako etxebizitzen kopurua operadore pribatuen eta kooperatiben arabera	0	0
VISESAk eraikitako etxebizitzen kopurua	0	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeko dirulaguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

2022ko maiatzaren 31ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Horren bidez, argitara eman dira 2022an etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko hainbat jarduketa babesgarritako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak. (2022ko ekainaren 10eko EHAA, 112. zk.).

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da udalaren lurzoru-ondareen eraketa bultzatzea, etxebizitza babestuak sustatzeko.

Laguntza-lerro hau udalei, tokiko erakunde publikoei eta udal-sozietate publikoei zuzenduta dago.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak. Urtero, sailburuaren agindu baten bidez, dirulaguntza-lerro honetara bideratutako kredituen berri ematen da.

2022eko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura 50.000 eurokoa izan zen. Ez da eskabiderik jaso programa honetan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lortutako lurzorian eraiki daitezkeen etxebizitzaren kopurua		0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Partikularrek eta auzotarren erkidegoek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentzea hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko**

## 2.- Araua

### **BOE araubidea:**

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: “2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa”. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

### **BOEen gehieneko prezioak:**

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako hutsak zuzentzeko dena: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: “2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa”. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

### **Etxebizitza birgaitzea:**

- 117/2018 DEKRETUA, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. (2018ko irailaren 5eko EHAA, 171. zk.)



- AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa. (2021eko irailaren 9ko EHAA, 180. zk.).
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena. (2014ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zk.).

**Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:**

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

2022ko maiatzaren 31ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena. Horren bidez, argitara eman dira 2022an etxebizitzaren eta lurzorua arloko hainbat jarduketa babesgarritako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak. (2022ko ekainaren 10eko EHAA, 112. zk.).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eraikitako parkea birgaitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan, partikularrek eta auzotarren erkidegoek birgaitze-obra egiteko dirulaguntza-lerroa dago, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentzea hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonei sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko.

Dirulaguntzak herritarrei eta jabeen erkidegoei zuzenduta daude.

EAEan jarduten duten kreditu-erakundeek maileguak ematean oinarritzen da sistema (administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren esparruan), eta zuzeneko dirulaguntzen eta maileguen interes-puntuaren subsidioen sistema artikulatzen da, araz ezarritako babes-kasu zehatz eta tasatuetan.

Intereseko subsidioen kasuan, jarduketa babestuak etxebizitza babesturako lurzorua erosteko eta urbanizatzeko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko baino ez dira egiten.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kasuan, lurzorua eta alokairuaren aurreko bi lerro horiei etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea eta etxebizitza libre erabiliak erostea gehitu behar zaie.



Laguntza-modalitateak jarduketa-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio progresiboko sistema baten bidez, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

2021eko uztailan, birgaitzeko agindu berri bat onartu zen, eta hobekuntza garrantzitsuak egin ziren obra horietarako. 2022ko ekitaldian, bi aginduak elkarrekin bizi dira, agindu berria indarrean jarri aurretik ebazteke zeuden eskaeren ebazpena dela eta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak.

#### Etxebizitzak birgaitzeko maileguen subsidioak:

“Euskadin alokairu eskuragarria sustatzea” helburuan, etxebizitza-programaren 2022ko aurrekontuan, “Finantza-hitzarmenaren bidez sistemari emandako finantzaketa” adierazleak 70 milioi euroko helburua adierazten du, eta 0,4 milioi eurora iritsi da.

2022an 43 mailegu onartu dira, 472.573,79 euroko zenbatekoarekin. Horietako bati 10.288,00 euroko dirulaguntza eman zaio.

#### Birgaitzeko dirulaguntzak:

Etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako laguntza-programaren esparruan, Sailak **28,9 milioi euroko laguntzak eman ditu guztira, eta horiei esker, 33.540 etxebizitza eta 6.653 lokal birgaitu dira.**

LH	Etxebizitza kop.	Lokal kop.	Eskabide kop.	Eraikinak	Dirulaguntzaren zenbatekoa
EAE	33.540	6.653	6.709	2.061	28.944.370,53 €
Araba	1.994	266	501	114	4.043.392,03 €
Bizkaia	21.123	3.976	4.131	1.259	9.737.783,75 €
Gipuzkoa	10.423	2.411	2.077	688	15.163.194,75 €

#### 1. LERROA: Partikularren obrak

	T01: Kontserbazio- eta bizigarritasun- obrak	T2: Energia- efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irigarritasun a hobetzeko obrak	T4: Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak.	Guztira
Dirulaguntzaren zenbatekoa	416.806,27	--	457.721,11	195.195,78	1.069.723,16
Aurrekontu babesgarria	.606.870,33	114.227,16	789.071,52	2.160.251,32	4.670.420,33
Dirulaguntza jaso duten etxebizitzaren kopurua	115	--	103	107	259



2. LERROA: ERKIDEGOEN OBRAK				
Erkidegoarentzako laguntzak				
	T1: Kontserbazi o-, segurtasun-	T2: Energia- efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irisgarritasun a hobetzeko obrak	Guztira
Dirulaguntzaren	5.389.063,8	6.462.879,97	4.312.994,23	16.164.938,00
Aurrekontu babesgarria	175.808,44	53.054.083,8	67.629.469,2	296.491.998,46
Etxebizitza kopurua	22.586,00	2.929,00	8.756,00	33.102,00
Erkidego kopurua	1.349,00	218,00	563,00	2.061,00
2. LERROA: ERKIDEGOEN OBRAK				
Partikularrentzako laguntzak				
	T1: Kontserbazi o-, segurtasun-	T2: Energia- efizientzia hobetzeko obrak	T3: Irisgarritasun a hobetzeko obrak	Guztira
Dirulaguntzaren	4.517.723,0	2.039.902,93	4.686.020,46	11.243.646,45
Aurrekontu babesgarria	-	-	-	-
Etxebizitza kopurua	128,00	2,00	70,00	179,00
Erkidego kopurua	128,00	2,00	70,00	179,00

Etxebizitzen baturak ez du bat etorri behar guztizkoarekin, etxebizitza batzuek kontzeptu batengatik baino gehiagorengatik jasotzen baitute dirulaguntza. Gauza bera gertatzen da erkidegoekin.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	12.000	33.540
Lokal-kopurua		6.653
Erkidego kopurua		2.061
Instalaturako igogailuen kopurua	600	164
Energia-efizientzia hobetu duten etxeen kopurua	4.000	2.931



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, energia-eraginkortasuna sustatzeko (3, 4 eta 5 programak)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen baita (laguntza horiek Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2022/06/2202988e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontseiluaren 2021eko ekainaren 16ko Beteazpen Erabakiaren (CID, ingelesezko siglak) eranskinean ezarritako helburuak betez – Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa –, programa honetako laguntzak ematea eta egikaritzea honako hauek betetzen lagunduko da:

- a) CIDen 27. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, batez beste energia primarioaren % 30 aurreztuta (7.773 etxebizitza), 2023ko laugarren hiruhilekoan.
- b) CIDen 29. helburua: etxebizitzak berritzeko jarduketak amaitzea, batez beste energia primarioaren % 30 aurreztuta (17.246 etxebizitza), 2026ko bigarren hiruhilekoan.

Programei eta horien definizioari dagokienez:

- 2. programa. Birgaitze-bulegoei laguntzea
- 3. programa: eraikin mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza
- 4. programa. Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako laguntza
- 5. programa: eraikinaren liburua egiteko laguntza

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko ekitaldian, 840 espedienteren eskaerak jaso ziren, 6.342 etxebizitzetarako. 184 espedienteren aldeko ebazpena eman da, 2261 etxebizitza guztira.

SEM funtsak ditugu 2022an, 39.140.906 eurokoak, eta emandako dirulaguntzak 9.998.335,84 eurokoak dira.



Laguntza-lerro hori bizitegi-birgaitzearen motor garrantzitsua da, karbono gutxiko ekonomia sustatzen du, energia-efizientziari laguntzen dio, energiaren kudeaketa adimenduna bultzatzen du, etxebizitza-eraikinen azpiegiturretan energia berriztagarriak erabiltzen laguntzen du, eta energia-efizientzia hobetzen du eta CO2 emisioak murrizten ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitze-prozesuan dauden etxebizitzien kopurua (2023ra arte)	5.830	2.261





#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko dirulaguntzak, Eraikal 2022 programa**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko 2022rako dirulaguntzak arautzen dituen eta haien deialdia egiten duena (Eraikal 2022 programa).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Agindua, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2022ko ekitaldirako Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2021eko abenduaren 31koa, arautzen eta iragartzen duena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106489e.pdf>

- I. lerroa emateko ebazpena, 2022ko azaroa (EHAAn argitaratu gabea).
- II. lerroa emateko ebazpena, 2022ko azaroa (EHAAn argitaratu gabea).
- III. lerroa emateko ebazpena, 2022ko azaroa (EHAAn argitaratu gabea).
- IV. lerroa emateko ebazpena, 2022ko azaroa (EHAAn argitaratu gabea).
- V. lerroa emateko ebazpena, 2022ko abendua (EHAAn argitaratu gabea).

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diruz laguntzeko moduko jardueratzat hartuko dira honako lerro hauekin bat datozen ekintzak:

- I. lerroa: Honako alderdi hauei buruzko berrikuntza-proiektuak edo -azterlanak:
  - a) Bizitegi-eraikuntzaren kalitate funtzionala, arkitektonikoa eta eraikuntzakoa.
  - b) Kudeaketaren kalitatea hobetzeari eta kalitatea ezartzeari buruzko azterlanak eta Eraikuntzaren Informazio Modelatzea.
  - c) Obretako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak.
  - d) Eraikinen instalazioei buruzko azterlanak.
  - e) Etxebizitza berrien eta lehendik daudenen bizigarritasunari buruzko azterlanak.
- II. lerroa: Tresna informatikoak, dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak garatzea, aurreko atalean jasotako gaiekin lotuta.
- III. lerroa: Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko pertsona fisiko edo juridikoentzako kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.
- IV. lerroa: Eraikuntzetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.



V. lerroa: Bizitegi-eraikuntzako eraikuntza-prozesuen industrializazioari buruzko azterlan, proiektu eta prototipo espezifikoak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Emaitza

Deialdiaren agindua 1.070.000,00 €

Emakida: 1.068.386,69 €, honako urteroko hauekin:

2022 99.260,44€

2023 704.749,11€

2024 258.077,14€

I. lerroa: diruz lagundutako 7 proiektu

II. lerroa: diruz lagundutako 7 proiektu

III. lerroa: diruz lagundutako 16 ziurtagiri.

IV. lerroa: diruz lagundutako ziurtagiriak

V. lerroa: diruz lagundutako 6 proiektu

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	70	37



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketara babesgarrietarako finantza-neurriak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketara babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa. (2021eko irailaren 9ko EHAA, 180. zk.).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104690e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1.- Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak. Birgaitze-obrek esku-hartze proiektu bati dagokion irismen globala dutenean, eta proiektu horrek, aldi berean, energia-efizientzia, irisgarritasuna eta suteetarako segurtasuna barne hartzen dituzenean, gutxienez, etxebizitza-erabilera nagusia duen bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin oso batean. Era berean, esku hartzeko proiektuek etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak jaso ahal izango dituzte.

EITaren txostenak 1., 2. edo 3. mailako obrak jasotzen dituzenean, akats horiek konpontzera bideratutako obrak egiteko aurreikuspena jaso beharko du esku-hartzeak.

2.- Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurrien kasuan (3. lerroa), diruz lagun daitezkeen honako kostu hauei dagozkien partidak hartuko dira aurrekontu babesgarritzat:

- a) Txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko eta obren zuzendaritza fakultatiborako ordainsari profesionalak, baldin eta horiek ezinbestekoak badira dirulaguntzaren xede diren jarduketak gauzatzeko, zergak kanpo utzi ondoren. Era berean, eta hala badagokio, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa idazteko ordainsari profesionalen kostuak.
- b) Obrak egitea, baldin eta ezinbestekoak badira dirulaguntzaren xede diren jarduketak gauzatzeko, zergak kanpo utzita, proiektua onartu ondoren eta obra-amaierako ziurtagiriaren data baino lehen gauzatu, ziurtatu eta fakturatu badira.

3. – Laguntzaren xede diren familia anitzeko eraikinak 1980a baino lehen eraiki behar dira, eta eraikin horiek dagokien hirigintza- eta egitura-egokitzapena izan beharko dute, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

37 eskabide jaso ziren, eta horietatik 16k atzera egin dute, eta batek kontrako ebazpena eman du. 17 ebatzi dira, 2.058.823,90 euroko dirulaguntzarekin, 2021eko uztailaren 21eko Aginduaren kargura, honela banatuta:

2022	308.826,58 €,
2023	546.969,14 €,
2024	792.906,93 €,
2025	410.124,25 €.

Gainerako eskaerak (3) aztertzen ari dira.

271 etxebizitza daude diruz lagundutako 17 eskaeren artean.

Laguntza-lerro hori bizitegi-birgaitzearen motor garrantzitsua da, karbono gutxiko ekonomia bultzatzen du, energia-efizientziari laguntzen dio, energiaren kudeaketa adimenduna bultzatzen du, etxebizitza-eraikinen azpiegituretan energia berriztagarriak erabiltzen laguntzen du, eta energia-efizientzia hobetzen du eta CO2 emisioak murrizten ditu. Era berean, irisgarritasun unibertsala sustatzen du, dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobetuz eta suteen aurkako babes-sistemak egungo araudira egokituz. Eta etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak ere aurreikusten ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	12.600	271



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2022. urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2022ko maiatzaren 24koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa bat ezartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak bultzatzeko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/06/2202450e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeko aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

150.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 8 espediente izapidetu dira, eta haietatik 6 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 50.019,72 euro. Horietatik 50.019,72 euro erabili dira.

Programaren eta helburuen burutzapen- eta betetze-mailari dagokionez, 8 eskaera eta 6 onuradunetatik lortutako emaitzak espero zena baino pixka bat txikiagoak izan dira; halere, kontuan izan behar dugu sektore zehatz horrek pairatu behar izan duen egoera 2022. urtean. Horri aurre egiteko, 2023. urterako neurri zehatzak hartuko dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako diru-laguntzak	15	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2022. Urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2022ko ekainaren 28koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresarialeiei laguntzak emateko deialdia.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/07/2203124e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesionalen eta enpresarialen jarduera eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesionalak eta enpresarialak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

105.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura. Zenbateko hori, aurreikusitako eskabideekin eta kopuruekin bat zetorrela jo zen.

Laguntza horiek eskatzeko 12 espediente izapidetu dira, eta haietatik 6 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 98.745,54 euro, eta horietatik 96.876,54 erabili dira..

Programaren betepenari eta lortutako helburuei dagokionez, 2022. urtean eskainitako emaitzak (12 eskabide eta 6 onuradun. hurbildu egiten dira 2022rako aurrekontuen memorian 8 magnitudetan ezarritako helburuetara; horregatik, programak jasotako erantzuna egokitzat hartu da eta, aurreikusitako egitaraua betetzen dela uste da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
elkarte eskatzaileen zenbatekoa	8	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2022. urterako**

## 2.- Araua

Agindua, 2022ko maiatzaren 10ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita jarduera bertan behera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202178e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitzat jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adineko profesionalak jarduera uztea sustatzea, eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

310.000euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura. Laguntza horiek eskatzeko 83 espediente izapidetu dira, eta haietatik 50 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 400.000 euro, eta kopuru horretarik 354.873,10 euro erabili dira 7 onuradunek diru-laguntzari uko egitea aurkeztu ondoren eta beste bati laguntza kobratzeko eskubidea galdu duela ebatzi ondoren.

Aurkeztutako 83 eskabideetatik 43 onuradun egoteak esan nahi du adineko 43 garraiolarik lanbidea utzi eta jarduera-baimenari uko egin diotela. Emaitza horiek 2022rako aurrekontuen memorian 38 magnitudetan ezarritako helburuetara ez dira heltzen. Halere, eskatutako baldintzak betetzen ez zituzten eskabideen kopuruari gehitzen badiogu deialdian emandako beste gertaerak, lortutako emaitzan eragina izan dutela esan genezake, beti ere emaitzak oso positiboak izan direlarik.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
garraiorako baimenari uko egiten dioten garraiolarien kopurua	38	43